

BBK-k eta Lehiaren Euskal Agintaritzak foro bat antolatu dute bertoko mertakaritzaren eraldaketa digitalean sakontzeko

"Merkataritzarako Eraldaketa Digitala" jardunaldia, Europako Batzordearen EU Industry Week-en barruan kokatua, datorren ostegunean, otsailaren 4an, egingo da BBK Salan, eta bertan izango dira Martin Peitz, Mannheim Unibertsitateko (Alemania) Ekonomia irakaslea eta merkataritza digitalaren plataformetan eta Europako arauketan aditua, eta Manuel Balsera, AMC Networks ISEko zuzendari nagusia

Saioak bi ordu iraungo du eta bertan Lurraldean abian diren online salmentako azken ekimenak ezagutzeko aukera izango da: Durangoko Azoka, todostuslibros.com eta Marketplace Bizkaia Eup!

BILBON, 2021eko, urtarrilaren 26an / BBK Salan "Merkataritzaren eraldaketa digitala" jardunaldia izango da datorren ostegunean, otsailak 4, Europako Batzordearen EU Industry Week 2021en esparruan; jardunaldia BBK-k eta Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) antolatu dute. Jardunaldiaren helburuak dira merkataritzaren digitalizazioarako dauden aukeren eta beharrezan tokiko ikuspegia ematea, digitalizazioak txikizkako edo xehekako merkataritzan dituen inplikazioak errepasatzea eta ekonomia digitalaren sektorean lehia inklusiboa sustatzea.

Jardunaldia sektoreko elkarte nagusiei eta Bizkaian dauden 14.870 xehekako edo txikizkako saltegiei zuzenduta dago, batez ere oraindik beren online dendarik ez duten negozioen % 86 horri. Interesatuak honako esteka honetan eman dezakete izena, aurrez aurre bertan egoteko edo saioa, gutxi gorabehera bi ordukoa, streaming bidez jarraitzeko; izan ere, jardunaldia hibridoa izango da, ahalik eta jende gehienak jarraitu ahal izateko eta, BBK Salara joatea erabakitzen duten pertsonen begira, pandemia-egoerak eskatzen dituen osasun-arauak betetzeko.

Jardunaldian Martin Peitz izango da, Mannheimeko (Alemania) Unibertsitateko Ekonomia irakaslea eta merkataritza digitalaren Europako plataforma eta arauketan aditua; bera eta Manuel Balsera, AMC Networks ISEko zuzendari nagusia, arduratuko dira xehekako merkataritzaren digitalizazioaren egoera eta aurre egin beharreko erronkak testuinguruan jartzeaz, eraldaketa digitalaren gako eta joera nagusiak aurkezteaz eta tokiko merkataritzarako dituen inplikazioak azaltzeaz.

Bigarren mahaian, duela gutxi sortu diren bertoko esperientzia arrakastatsuen berri emango da, edo bertoko merkataritzaren digitalizazioari bultzada eman gura dioten beste

esperientzia batzuen berri, hala nola, Marketplace Bizkaia Eup!, BBK-k eta Bizkaiko Foru Aldundiak duela aste batzuk aurkeztutako proiektua, bere produktuen salmenta bultzatze aldera Bizkaiko merkataritzari erakusleihu digital bat eskaintzeko. Ekimen honen gerentea den Susana Aguirrekin batera, Arantza Atutxa Gerediaga Elkarteko gerentea eta Miguel Iglesias agertuko dira. Bizkaian sortutako online salmentako bi esperientzia arrakastatsuren inguruko xehetasunak emango dituzte biek: iazko Durangoko Azoka eta todostuslibros.com plataforma, hurrenez hurren.

Ekimenak BBKren, Lehiaren Euskal Agintaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesu du. Hiru erakunde horien ordezkari lez, Nora Sarasola, BBK Fundazioaren Gizarte Ekintzako zuzendaria, Alba Urresola, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria, eta Ainara Basurko, Ekonomia Sustatzeko foru diputatua, izango dira bertan, jardunaldia ireki eta online merkataritzak maila globalean eta lokalean bizi duen unea bere testuinguruan jarriko dute. Jardunaldiari amaiera Enara Venturinik, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Kontseiluko kideak, emango dio.

Merkataritza elektronikoa hazkunde geldiezina izan du azken urteotan maila globalean. Bizkaian gero eta gehiago erosten dugu Internet bidez, urtean % 10eko hazkundearekin, eta 2018an 7.000 milioi euroko kopurua gainditu zen. Bizkaiko salmenta guztien % 35 dira dagoeneko. Azken datuen arabera, milioi erdi pertsonak baino gehiagok erosten dute Internet bidez Bizkaian, eta aldi berean xehekako edo txikizkako merkataritzak okerrera egiten du. Garrantzi handia duen sektorea da, Lurraldeko enpleguari eta BPGari egiten dion ekarpenagatik: 47.247 enplegu xehekako merkataritzan, biztanleria landunaren % 10 ia. Azken hamar urteotan 3.668 saltegi (% 21,7) desagertu dira Bizkaian.

COVIDek bizkortu egin du gure bizitzan gero eta finkatuago zegoen errealitate bat: berrikuntza teknologikoaren ondorioz sorturiko kontsumo-ohitura berriak, eta pandemiak azken urtean bizkortu egin dituenak. Koronabirusaren krisiak eta xehekako merkataritzaren itxiera sistematikoak online salmentak bultzatu ditu mundu osoan. Munduan 2 internautatik ia batek aitortu du eskaera gehiago ari dela egiten online. "Normaltasun berrian" bizirauteak, hori lortzen duten saltegiak, aldaketa latza ekarriko du "ecommerce" eta digitalizaziorantz.

BBK ETA LEA/AVC ITUNA

Bizkaia oparo, kohesionatu eta iraunkor edo jasangarria eraikitzen laguntzea du BBK-k xede, bertoko ongizateari eta aukera-berdintasunari lagunduz ekintza bereizi eta trakzio-ekintzen bidez, eta ondarea zainduz inbertsio arduratsu eta konprometituekin. Ekintza horietako bat gure merkataritzari bere garapenean eta bere erronkei aurre egiten laguntzea da.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) xedea da merkatuko lehia- eta gardentasun-baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea. LEA/AVCk tokiko ekitaldi hau aurkeztu zuen Europako Batzordean, interesgarria delako "on line" merkataritzan "Fair Competition", Europako digitalizazio-estrategiarekin lerrokatua, sustatzea, azken batean, sare ekonomikoaren eraldaketari ekin eta negozio txikiek plataforma digital handiekin lehiatu ahal izan dezaten.